

## Informazio eta Komunikazio Teknologiak


Ezagutzaren gizarte berriak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien zabalkuntzak erabateko aldaketa eragin dute pertsonen prestakuntza-premietan. Aldaketa horiek ondorioak izan behar dituzte prestakuntza-premiei erantzuteko ardura duen hezkuntza-prozesuan; izan ere, IKTk hezkuntza iraunkorraren giltzarrizko baliabide dira ikasleen, irakasleen zein familien prestakuntzan.

Hala, bi helburu nagusi ditugu: batetik, hezkuntzan parte hartzen duten eragileek baliabide digitalen onura lortzea eta, bestetik, herritarrak gaitzea, IKTk ikastetxeen irakas-, administrazio-, informazio- eta komunikazio-prozesuetan erabiltzea sustatuta, eta ekintza guztien arteko koordinazioa zein koherentzia bermatuta.

## IKTen heldutasun

### MAILA ERTAINA LORTU DUGU!

Ikastetxeak bere azpiegiturak, tresna telematikoak, eta pedagogia- eta administrazio- baliabideak antolatu ostean, ikasgelan egin behar dira



ahalegin guztiak, curriculumeko eremu bakoitza lantzeko garaian IKTk erabil daitezten. Ikasgai bakoitza lantzeko IKTen eta, batez ere, interneten erabilpena hedatuko dugu, eta

ikasgelek teknologia-hornidura iraunkorra izango dute, egunero erabiltzeko. Horretarako, kalkulatu dugu ikastetxeko lanpostuen zerrendako irakasleen %70tik gora erabiltzen dituztela IKTk ikasgelan (hasierako soslai) eta, gutxienez, %50 baliabide telematikoekin eta web 2.0 baliabideekin lanean jarduteko gai direla (soslai ertaina).

Bestalde, ikasleek eta familiek online eskura ditzakete ikastetxeko informazio jakin batzuk, esaterako, ikasgaiei buruzkoak, ikastetxearen webgunean, taldearen webgunean, buletin elektronikoetan, blogetan eta abarretan begiratuta. Informazioa, funtsean, norabide bakarrekoa da. Ikastetxeak IKT gelak eta baliabideak zabalik ditu hainbat orduz, eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-komunitateak erabil ditzan.

“Ikastetxeen teknologia-heldutasunaren ereduak” ikastetxe bateko  
prozesuen digitalizatzeko-mailaren balioespina egitea bideratzen du, eta  
teknologia-heldutasunaren hurrengo mailak lortzeko bidea erakusten du,  
teknologiei, praktikei eta hezkuntza-komunitateko eragile guztien  
gaitasunei erreparatuta, eta ikastetxe bakoitzaren berezitasunak eta  
berriak aintzat hartuta.